

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2008/52/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko maiatzaren 21ekoa, gai zibilen eta merkataritza-gaien inguruko bitartekaritzako alderdi batzuei buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/52/CE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 21 de mayo de 2008, sobre ciertos aspectos de la mediación en asuntos civiles y mercantiles» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 136/3, 2008/5/24koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## ZUZENTARAUAK

### 2008/52/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

**2008ko maiatzaren 21ekoa**

#### **gai zibilen eta merkataritza-gaien inguruko bitartekaritzako alderdi batzuei buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 61. artikuluko c) idatz-zatia eta 67. artikuluko, 5. paragrafoko bigarren gidoia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Gizarte eta Ekonomia Komitearen irizpena <sup>(1)</sup> aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura <sup>(2)</sup> bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Pertsonen joan-etorri askea bermatzen duen askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparru bati eusteko eta hura garatzeko helburua finkatu du Erkidegoak.

Horretarako, barne-merkatuak hobeto funtzionatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu, gai zibiletan epaileen arteko lankidetzaz lortzeko neurriak, esaterako.

(2) Justizia eskuratzeko printzipioa funtsezkoa da eta, justizia eskuratzeko modua erraztu eta hobetearren, epaiketez kanpoko bestelako prozedura batzuk sortzeko eskatu ziren Kontseilu Europarrak estatu kideei, 1999ko urriaren 15 eta 16an Tanperen egindako bileran.

(3) Gai zibilen eta merkataritza-gaien inguruko gatazkak konpontzeko bestelako bideei buruz Ondorio batzuk onartu zituen Kontseiluak 2000ko maiatzean; Kontseiluak esan zuen gaion inguruko gatazkak epaiketarik gabe konpontzeko prozeduren garapena eta prozedura horiek ondo funtzionatzeko esparru horri dagozkion funtsezko printzipioak zehaztea ezinbestekoa zela Ondorio horietan, justizia eskuratzeko modua erraztu eta hobetearren, horrela.

(4) 2002ko apirilean, Batzordeak aurkeztu zuen zuzenbide zibilaren eta merkataritza-zuzenbidearen esparruko gatazkak konpontzeko bestelako bideei buruzko Liburu Berdea. Liburu horretan, Europar Batasunean gatazkak konpontzeko gehien erabiltzen diren metodoen balantzea egiten zen eta bitartekaritza sustatzeko har litezkeen neurriei buruzko kontsulta zabala egin zitzaizen estatu kideei eta interesa zuten eragileei.

---

(1) C 286 EO, 2005/11/17koa, 1. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko martxoaren 29koa (C 27 E EO, 2008/01/31koa), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2008ko otsailaren 28koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko apirilaren 23koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(5) Askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua sortzeko EBk bultzatzen duen politikaren barruan, justizia eskuratzeko aukerak errazteko helburuari dagokionez, auziak epaiketen bidez eta epaiketatik kanpo konpontzeko bideak jaso behar dira. Zuzentarau honen bidez barne-merkatuak ondo funtzionatzen duela ziurtatzen lagundu nahi da, bitartekaritza-zerbitzuak erabiltzeko aukerei dagokienez bereziki.

(6) Aldeen beharretara egokitutako prozedurak erabiliz, auzi zibiletan eta merkataritza-auzietan, epaiketaz kanpoko soluzio merke eta azkarra izan daiteke bitartekaritza. Bitartekaritzaren bidez lortutako hitzarmenak errazago beteko dira borondatez, eta aldeen artean harreman adiskidetsu eta bideragarri bati eusten ere lagundu dezake. Mugaz gaindiko gatazketan ikusten dira argien onura horiek.

(7) Bitartekaritzaren erabilera areagotzeko eta hura erabiltzen duten aldeek zuzenbide-esparru egonkorra aurkituko dutela bermatzeko, prozedura zibilaren oinarritzko alderdiak finkatzen dituen esparru-legeria onartu beharra dago.

(8) Zuzentarau honetako xedapenak mugaz gaindiko auzietan bitartekaritza egiteko prozedurei buruzkoak dira bakarrik. Halere, nahi izanez gero, estatu kideek xedapen horiek berek erabil ditzakete beren estatu barruko bitartekaritza-prozeduretan.

(9) Zuzentarau honek ezin du inola ere galarazi komunikazio-teknologia berriak erabiltzea bitartekaritza-prozeduretan.

(10) Zuzentarau hau aplikatu behar da mugaz gaindiko alde bik edo gehiagok daukaten auzia modu adiskidetsuan konpontzeko bitartekari baten laguntza erabiltzea borondatez erabakitzen duteneko prozeduretan. Gai zibiletan eta merkataritza-gaietan aplikatu behar da. Dena den, aplikatzekoa den legeriaren arabera, aldeek beren kasa erabakitzeko askatasunik ez duten kasuetan ezin izango da Zuzentarau hau aplikatu aldeek eskubide eta betebeharrei dagokienez. Eskubide eta betebehar horiek familia-zuzenbidearen eta laneko zuzenbidearen esparrukoak dira, gehienbat.

(11) Honako kasu hauetan ere ezin da aplikatu Zuzentarau hau: aurrekontratuaren negoziatioetan; prozedura ia jurisdikzioaletan, adiskidetze judizialeko zenbait mekanismotan, kontsumoko erreklamazioetan aplikatzen diren sistemetan, arbitrajean eta adituen erabakietan, esaterako; gatazkak konpontzeko gomendio formalak ematen dituzten pertsona nahiz organoek kudeatutako prozesuetan, gomendio horiek nahitaezkoak izan ala ez.

(12) Zuzentarau hau aplikatu ahal izango da organo jurisdikzional batek aldeak bitartekaritzara bidaltzen dituen kasuetan edo estatuko legeriak bitartekaritza agintzen duen kasuetan. Era berean, dagokion estatuko zuzenbideari jarraiki, epaileek bitartekari jardutea daukaten kasuetan, Zuzentarau hau aplikatu ahal izango da auzipean dauden gaiekin zerikusia duen inongo epaiketaren arduradun ez den epaile batek bideratutako bitartekaritzan ere. Nolanahi ere, ez da Zuzentarau hau aplikatuko gatazkarekin zerikusia duen prozesu judizial baten barruan, organo jurisdikzionalak nahiz eskumeneko epaileak egiten dituzten gestioetan eta organo jurisdikzionalak nahiz epaileak aditu bati laguntza edo aholkua eskatzen dioten kasuetan.

(13) Zuzentarau honek arautzen duen bitartekaritzak borondatezkoa izan behar du: aldeek prozedura horren gaineko erantzukizuna hartu behar dute, nahi bezala antolatu ahal izango dute eta nahi dutenean amaituko dute. Dena den, estatu bakoitzeko zuzenbideak aukera eman behar die organo jurisdikzionalari bitartekaritza-prozeduretarako epe batzuk finkatzeko. Bestalde, hala dagokionean, aukera izan behar dute aldeei bitartekaritza erabiltzeko aukera dutela esateko.

(14) Zuzentarau honetan araututako ezerk ezin du eraginik izan bitartekaritza nahitaezkozat jotzen duten edo hura erabiltzeko pizgarri nahiz zigor batzuk jartzen dituzten estatu-mailako legeetan, baldin eta lege horiek sistema judiziala erabiltzeko eskubidea ukatzen ez badiete aldeei. Era berean, indarrean dauden bitartekaritza-sistema autorregulatzaila ere ez du eraginik izango Zuzentarau honek, bertan arduratzen badira arautu gabe dauden alderdiez.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(15) Segurtasun juridikoa ematearren, aldeak bitartekaritzarekin konpontzen saiatzen ari diren auzi bat mugaz gaindikoa den ala ez erabakitzeko kontuan hartu beharreko data finkatu behar da Zuzentarau honetan. Idatzizko hitzarmenik ez badago, bitartekaritza-prozedurari ekiteko neurri zehatzak hartzen dituzteneko data hartuko da aldeek bitartekaritza erabiltzea erabaki duteneko datatzat.

(16) Estatu kideek bitartekariaren trebakuntza eta bitartekaritza-zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko bitarteko eraginkorrak bultzatu behar dituzte, egokitzat jotzen dituzten baliabideak erabiliz, aldean artean beharrezkoa den elkarrekiko konfiantza bermatzearen alor hauetan: konfidentzialtasuna, hitzarmenak iraungitzeko eta indarrrik gabe gelditzeko epeen gaineko eragina eta bitartekaritza sortutako hitzarmenen onarpen eta betearazpena.

(17) Estatu kideek, beraz, halako bitartekoak finkatu behar dituzte. Merkatuan aukera dago dagoeneko erabilgarri dauden bitartekoak erabiltzeko, baina estatuak ez dute halakoak zertan finantzatu. Bitartekaritza-prozeduraren malgutasuna eta aldean autonomia babesten saiatu behar dute bitarteko horiek. Horrekin batera, bermatu behar da bitartekaritza eraginkorra, alderdikeriari gabea eta gaitasunez egina dela. Europako Bitartekarietzako Jokamolde Kodea dagoela jakinarazi behar zaie bitartekariari. Jende arruntak ere badauka kode hori eskuratzea Interneten.

(18) Kontsumitzaileen babesari dagokionez, Batzordeak Gomendio bat <sup>(1)</sup> onartu zuen kontsumoari buruzko auziak adostasunez konpontzeko epaiketaz kanpoko organoek erabiltzaileei eskaini beharreko gutxienezko irizpideak finkatzeko. Gomendio horren aplikazio-eremuan jarduten duten bitartekari eta erakunde guztiak akuilatu behar dira Gomendioaren printzipioak betetzeko. Halako organoari buruzko informazioa hedatzen laguntzeko, Estatu kideen iritziz Gomendioaren printzipioak betetzen dituzten epaiketaz kanpoko sistemei buruzko datu-basea osatu behar du Batzordeak.

(19) Bitartekaritza ez da epaiketaren alternatiba txarragotzat jo behar, bitartekaritza ateratako hitzarmenak betetzea aldean borondate onaren mende dagoela eta. Horregatik, estatuak bermatu behar dute bitartekaritzaren ondorioz sinatutako idatzizko hitzarmen bateko aldeek hitzarmen horren edukia betearazteko modua dutela. Estatu kideek kasu hauetan bakarrik izango dute hitzarmen bat betearazi beharrekoa izatearen aurka egitea: hitzarmenaren edukia estatuko legeriaren aurkakoa denean (nazioarteko barne-zuzenbidea barne) edo hitzarmen zehatzaren edukia nahitaez bete beharrekoa ez bada. Hori gerta liteke hitzarmenean jasotako betebeharrak berez nahitaez bete beharrekoak ez badira.

(20) Bitartekaritza ateratako hitzarmenaren edukia nahitaez bete beharrekoa bada estatu batean, gainerako estatu kideek ere hitzarmen hori onartu eta nahitaez bete beharrezkotzat jo behar dute, Erkidegoan nahiz dagokion estatuan aplikatu beharreko legeriarekin bat etorritik, adibidez: Kontseiluaren 44/2001 (EE) Erregelamendua, 2000ko abenduaren 22koa, gai zibilak eta merkataritza-gaiak epaitzeko eskumenei eta epaileen ebazpenak onartu eta betearazteari buruzkoa <sup>(2)</sup>; Kontseiluaren 2201/2003 (EE) Erregelamendua, 2003ko azaroaren 27koa, ezkontzen eta guraso-erantzukizunen inguruko auziak epaitzeko eskumenei eta epaileen ebazpenak onartu eta betearazteari buruzkoa <sup>(3)</sup>.

(21) 2201/2003 (EE) Erregelamenduan berriaz esaten da aldean arteko hitzarmenak nahitaez bete beharrekoak izan behar dutela hitzarmena sinatu den estatuan, beste estatu kide batean ere nahitaez bete beharrekoak izateko. Horrenbestez, bitartekaritzaren bidez lortu den familia-alorreko hitzarmen baten edukia nahitaez bete beharrekoa ez bada hitzarmena sinatu den estatuan edo nahitaez bete behar izateko eskatu den estatuan, Zuzentarau honek ezingo

---

(1) Batzordearen 2001/310/EE Gomendia, 2001eko apirilaren 4koa, kontsumoari buruzko auziak adostasunez konpontzeko epaiketaz kanpoko organoetan bete beharreko printzipioei buruzkoa (L 109 EO, 2001/04/19koa, 56. or.).

(2) L 12 EO, 2001/01/16koa, 1. or. Azkenik 1791/2006 (EE) Erregelamendua (L 363 EO, 2006/12/20koa, 1. or.) aldatutako Erregelamendua.

(3) L 338 EO, 2003/12/23koa, 1. or. 2116/2004 (EE) Erregelamendua aldatutako Erregelamendua (L 367 EO, 2004/12/14koa, 1. or.).

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ditu aldeak akuilatu, hitzarmena beste estatu kide batean nahitaez bete beharrekoa izatea lortzeko gestioen bidez, estatu horretako legeria saihesten dezaten.

(22) Zuzentarau honek ez du eraginik izango bitartekaritzaren bidez sinatutako hitzarmena betetzeari buruz Estatu kideek dituzten arauetan.

(23) Bitartekaritza-prozeduraren konfidentzialtasunak duen garrantzia dela eta, epaiketa zibiletako arauen arteko gutxieneko bateragarritasuna finkatzen duten xedapenak jaso behar dira Zuzentarau honetan, geroagoko epaiketa nahiz arbitraje-prozesuetan (zibilak nahiz merkataritzakoak) bitartekaritzaren konfidentzialtasuna babesteko moduari buruz.

(24) Aldeak bitartekaritza erabiltzeko akuilatzearen, estatu kideek bermatu behar dute, bitartekaritzak huts egin eta aldeak auzitegira edo arbitrajera jotzea erabakiz gero, hitzarmenak iraungitzeko nahiz indarrrik gabe gelditzeko epeek ez dietela hori galaraziko. Zuzentarau honek hitzarmenak iraungitzeari eta indarrrik gabe gelditzeari buruzko estatu bakoitzeko arauak bateratzen ez baditu ere, goian aipatutakoa lortzen dela bermatu beharko dute estatu kideek. Nazioarteko hitzarmenak iraungitzeko eta indarrrik gabe gelditzeko epeei buruzko xedapenak estatu kideetan aplikatzen diren moduan, garraioari buruzko legerian adibidez, ez dira Zuzentarau honen eraginez aldatuko.

(25) Estatu kideek bultzatu behar dute jende guztiari ematen zaiola bitartekariekin eta bitartekaritza-zerbitzuak ematen dituzten erakundeekin harremanetan jartzeko moduaren berri. Era berean, zuzenbideko profesionalak akuilatu behar dituzte bezeroei bitartekaritzara jotzeko aukeren berri emateko.

(26) «Legeak hobeto ematea» izenburuko erakunde arteko Hitzarmeneko 34. puntuari jarriki <sup>(1)</sup>, estatu kide bakoitzari eskatzen zaio Zuzentarau honen eta transposizio-neurrien arteko bat-etortzea jasotzen duten koadroak finkatzeko eta argitaratzeko, beren nahiz Erkidego osoaren mesederako.

(27) Zuzentarau honen bidez oinarrizko eskubideak bultzatu nahi dira, eta bereziki Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotako printzipioak hartzen ditu kontuan.

(28) Zuzentarau honen helburua estatu kideek beren kasa bakarrik lortzerik ez dutenez eta, ondorioz, ekintzaren hedadura eta ondorioak Erkidego mailan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Zuzentarau hau ez da helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago joaten.

(29) Erresuma Batuaren eta Irlandaren jarrerari buruzko Protokoloko 3. artikuluari jarraiki —Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren eranskina—, Erresuma Batuak eta Irlandak jakinarazi dute Zuzentarau hau onartzen eta aplikatzen parte hartu nahi dutela.

(30) Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraiki —Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren eranskina—, Danimarkak ez du Zuzentarau honetan parte hartzen eta, hortaz, Zuzentarauek ez da loteslea beretzat eta ez dauka aplikatu beharrik.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

### *1. artikulua*

#### **Helburuak eta aplikazio-eremua**

---

(1) C 321 EO, 2003/12/31koa, 1. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Zuzentarau honen helburua da gatazkak konpontzeko bestelako bideak erabiltzeko aukerak erraztea eta auziak modu adiskidetsuan konpontzea bultzatzea, bitartekaritzaren erabilera bultzatuz eta bitartekaritzaren eta epaiketen arteko erlazio orekatua bermatuz.

2. Mugaz gaindiko auzietan, gai zibiletan eta merkataritza-gaietan aplikatuko da Zuzentarau hau, dagokion legeriari jarraiki aldean esku ez dauden eskubide eta betebeharren kasuan izan ezik. Zergei, muga-zergei nahiz administrazio-kontuei dagozkien auzietan bereziki ez da aplikatuko, ez eta bere agintaritza burujabea gauzatzean (*acta iure imperii*) egindakoengatik nahiz egin gabekoengatik estatuak daukan erantzukizunari dagokionez ere.

3. Zuzentarau honetan Danimarka ez beste estatu guztiak hartzen dira «Estatu kideetat».

## 2. artikulua

### Mugaz gaindiko auziak

1. Zuzentarau honen ondorioetarako, hauxe hartuko da «mugaz gaindiko auzizat»: gutxienez aldeetako bat gainerako aldeek helbidea duten edo ohiko bizilekua duten estatuaz bestelako estatu batekoa denean sortutako auzia, data hauetakoren batean:

- a) auzia sortu eta gero aldeek bitartekaritza erabiltzea erabakitzen dutenean,
- b) epaitegi batek bitartekaritza erabiltzeko agintzen duenean,
- c) dagokion estatuko legeriari jarraiki bitartekaritza erabiltzea nahitaezkoa denean, edo
- d) 5. artikulua oinarritzat hartuta, aldeei horretarako gonbitea bidaltzen zaienean.

2. 1. paragrafoan esandakoa alde batera utzi gabe, Zuzentarau honetako 7. eta 8. artikuluen ondorioetarako, ulertuko da 1. paragrafoko a), b) nahiz c) idatz-zatietan aipatzen den datan aldeek helbidea duten edo ohiko bizilekua duten estatuaz bestelako estatu batean aldean arteko bitartekaritza eta gero epaiketa bat edo arbitraje-prozesu bat hasten denean ere mugaz gaindiko auzi bat dagoela.

3. 1. eta 2. paragrafoen ondorioetarako, 44/2001 (EE) Erregelamenduko 59. eta 60. artikuluekin bat etorritik zehaztuko da helbidea.

## 3. artikulua

### Definizioak

Zuzentarau honi dagokionez, honela ulertuko dira honako termino hauek:

a) «bitartekaritza»: alde bik edo gehiagok, daukaten auzia konpontzeko, bitartekari baten laguntza erabiltzea borondatez erabakitzen duteneko prozedura egituratua. Prozedura hori erabiltzea aldeek erabaki dezakete, organo jurisdikzional batek proposatuta edo aginduta, edo Estatu kide bateko Zuzenbideak agin dezake, bestela.

Definizio horretan sartzeko da auziarekin zerikusia duen inongo epaiketaren arduradun ez den epaile batek bideratutako bitartekaritza ere. Ez, ordea, auziaz erabakitzeko eskumena duen organo jurisdikzionalak edo epaileak auziaren gaineko epaiketan haren berri jasotzeko egindako gestioak.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

b) «bitartekaria»: bitartekaritza modu eraginkorren, alderdikierarik gabe eta gaitasunez egiteko eskatzen zaion aldeez besteko edozein pertsona, dagokion Estatu kidean duen lanbidea edo izendapena edozein dela ere eta bitartekaritza egiteko izendatu duten edo eskatu dioten modua edozein dela ere.

#### *4. artikulua*

##### **Bitartekaritzaren kalitatea**

1. Estatu kideek borondatezko jokamolde-kodeak osatzea sustatuko dute, egoki ikusten duten moduan, eta bitartekariak eta bitartekaritza-zerbitzuak ematen dituzten erakundeek bultzatuko dute bat egitea kode horiekin eta bitartekaritza-zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko bestelako bitarteko eraginkorrek.
2. Bitartekarien hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra bultzatuko dute estatu kideek, bitartekaritza modu eraginkorren, alderdikierarik gabe eta gaitasunez ematen dela bermatzeko.

#### *5. artikulua*

##### **Bitartekaritzara jotzea**

1. Auzi batez arduratzen den organo jurisdikzionalak auzia konpontzeko bitartekaritzara jotzeko aukera proposatu ahal izango die aldeei, hala badagokio eta auziaren gorabehera guztiak kontuan hartuta.

Era berean, bitartekaritzaren erabilerari buruzko informazio-saio batera joateko eskatu ahal izango die organo jurisdikzionalak aldeei, halako saioren antolatzen bada eta erraz joateko modukoak badira, behintzat.

2. Zuzentarau honek ez du eraginik izango bitartekaritza nahitaezkoztat jotzen duten edo hura erabiltzeko pizgarri nahiz zigor batzuk jartzen dituzten estatu-mailako legeetan, prozedura judiziala hasi aurretik nahiz hasi eta gero, baldin eta lege horiek sistema judiziala erabiltzeko eskubidea ukatzen ez badiete aldeei.

#### *6. artikulua*

##### **Bitartekaritza atertako hitzarmenen nahitaezko izaera**

1. Estatu kideek bermatu beharko dute aldeek, edo aldeetako batek gainerakoen onspen esplizituarekin, eskatzea daukatela bitartekaritzaren ondorioz sinatutako hitzarmen baten edukia nahitaezko izaera izateko. Eduki hori nahitaezkoa izango da, non eta eskaera egin den estatu kideko zuzenbidearen kontrakoa ez den, eta estatu kide horretako legerian nahitaezkoztat jotzeko aukerarik ez dagoen.

2. Hitzarmen baten edukia nahitaezkoa bihur daiteke, eskaera egin den estatuko legeriarekin bat etorritik, organo jurisdikzional batek nahiz eskumeneko beste agintari batek emandako epaiari, ebazpenari edota legezko egintza bati jarraiki.

3. 1. eta 2. paragrafoekin bat etorritik, eskaera bat jasotzeko eskumena duten agintariak eta organo jurisdikzionalak zein diren jakinaraziko diote estatu kideek Batzordeari.

4. Artikulu honetan finkatutakoak ez du eraginik izango 1. paragrafoari jarraiki nahitaezko bihurtu den hitzarmen bat beste estatu kide batean onartu eta betearazteko aplikatu beharreko arauetan.

#### *7. artikulua*

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

#### **Bitartekaritzaren konfidentzialtasuna**

1. Bitartekaritzan konfidentzialtasuna babestu beharra dagoenez, epaiketa zibil batean, merkataritzako epaiketa batean edo arbitraje batean, eta aldeek besterik erabaki ezean, Estatu kideek bermatu beharko dute bitartekariak nahiz bitartekaritza-prozeduran parte hartzen duten pertsonak ez dituztela behartzen bitartekaritza-prozeduratik sortutako informazioa edo prozesu horrekin zerikusia duen informazioa ematera, kasu hauetan izan ezik:

a) dagokion estatu kidearen ordena publikorako beharrezkoa bada, adin txikikoen interes gorena babesteko eta pertsona baten osotasun fisiko eta psikologikoaren aurkako kalteak prebenitzeko, bereziki, edo

b) bitartekaritza sortutako hitzarmenaren edukia beharrezkoa bada hitzarmena aplikatu edo betearazteko.

2. 1. paragrafoan agindutakoa gorabehera, estatu kideek neurri zorrotzak aplikatu beharko dituzte bitartekaritzaren izaera konfidentziala babesteko.

#### *8. artikulua*

#### **Bitartekaritzaren eragina auziak iraungitzeko nahiz indarrrik gabe gelditzeko epeetan**

1. Auzi bat konpontzeko aldeek bitartekaritza aukeratzeko badute, estatu kideek bermatu beharko dute horrek ez diela galarazten geroago auzi horren inguruan prozesu judizial batera edo arbitrajera jotzea, bitartekaritza-prozedura egin bitartean beren auzia iraungitzeko nahiz indarrrik gabe gelditzeko epeak agortu direla eta.

2. 1. paragrafoan esandakoaz gain, estatu kideek sinatutako nazioarteko hitzarmenetan, bete beharko dira hitzarmenak iraungitzeko eta indarrrik gabe gelditzeko epeei buruzko xedapenak ere.

#### *9. artikulua*

#### **Jendeari jakinaraztea**

Estatu kideek bultzatuko dute bitartekariekin eta bitartekaritza-zerbitzuak ematen dituzten erakundeekin harremanetan jartzeko moduari buruzko informazioa jende artean zabaltzen dela, egokitzat jotzen dituzten bideak erabiliz, Internet bereziki.

#### *10. artikulua*

#### **Organo jurisdikzionaleri eta eskumeneko agintariei buruzko informazioa**

6. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorriz, Batzordeak eskuragarri jarriko du organo jurisdikzionaleri eta eskumeneko agintariei buruz estatu kideek jakinarazitako informazioa, egokitzat jotzen dituen bideak erabiliz.

#### *11. artikulua*

#### **Berrikusketa**

Zuzentarau honen aplikazioari buruzko txosten bat aurkeztu beharko die Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, 2016ko maiatzaren 21a baino lehen. Bitartekaritzak Europar Batasunean izandako garapenaren eta Zuzentarau honek estatu kideetan izandako eraginaren berri emango da txosten horretan. Zuzentarau hau egokitzeko proposamenak ere jasoko dira bertan, behar izanez gero.

#### *12. artikulua*

#### **Estatu kideetako zuzenbidean sartzea**

2008/52/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 136/3, 2008/5/24koa)



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Zuzentarau hau 2011ko maiatzaren 21a baino lehen betetzeko behar diren xedapenak (legeak, arauak eta administrazio-alarreko xedapenak) indarrean jarri beharko dituzte estatu kideek, 10. artikuluari dagokionez izan ezik: 2010eko azaroaren 21a baino lehen bete behar da artikulua hori. Horren guztiaren berri Batzordeari eman beharko diote berehala.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, Zuzentarau hau aipatu beharko da xedapenotan edo erreferentzia egin beharko zaio, ofizialki argitaratzen direnean. Estatu kideek finkatu beharko dute erreferentzia hori egiteko modalitatea.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinarazi beharko diote Zuzentarau honek araututako esparruaren barruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko xedapen nagusiak jasotzen dituen testua.

*13. artikulua*

#### **Indarrean sartzea**

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean.

*14. artikulua*

#### **Hartzaileak**

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko maiatzaren 21ean.

*Europako Parlamentuaren izenean, presidentea:* H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean, presidentea:* J. LENARCIC